

“Soy Jon y estoy muerto” antzezlanak emango dio hasiera Bidebarrieta Zientifikoa zikloari

Sasimedikuntzaren arriskuak azpimarratzen dituen antzezlanarekin bueltatuko da Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak eta Bidebarrieta Liburutegiak antolatutako hitzaldi zientifikoaren zikloa.

Bilbo, 2024ko irailak 11. Jonek minbizia du eta bere osasuna sasimedikuntzaren esku jartzen du. Hori da **Soy Jon y estoy muerto** antzezlanaren abiapuntua. Hain zuzen ere, Bidebarrieta Zientifikoa hitzaldi zientifikoaren zikloari hasiera emango dion emanaldia.

Proposamen ezberdin horrekin bueltatuko da [Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) eta [Bidebarrieta Liburutegiak](#) antolatutako hitzaldi zientifikoaren zikloa. Lehen hitzordu hori **irailaren 25ean Bilboko Bidebarrieta Liburutegian, 19:00etan**, izango da [Bilbo Zientzia Plaza](#) ekimenaren barnean.

Sasimedikuntzaren aurkako antzezlan

Soy Jon y estoy muerto antzezlanak minbizia duen eta kimioterapiari muzin egiten dion protagonistaren istorioa kontatzen du. Sasimedikuntzaren hautua egiten duen pertsonaiaren egoera bere guraso, anaia txikia, medikua edo lagunen ikuspuntutik azaltzen duen obra hau sasimedikuntzaren aurkako alegatua da.

Antzezlanak Javier Fernández Panaderok idatzi eta Rafa Sánchezek zuzendu eta antzezten du. Hain zuzen ere, emanaldiaren ondoren solasaldia egingo da autorearekin.

Emanaldirako sarrera librea izango da edukiera bete arte. Hala ere, Bidebarrieta Zientifikoa zikloko beste hitzaldi guztiak bezala, streamingez jarraitzeko aukera egongo da [Bidebarrieta Liburutegiko Kulturagunea kanalaren](#) bitartez.

La obra teatral "Soy Jon y estoy muerto" abre el ciclo Bidebarrieta Científica

Vuelve el ciclo de conferencias científicas organizado por la Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco y la Biblioteca Bidebarrieta con una obra que subraya los peligros de la pseudomedicina.

Bilbao, 11 de septiembre de 2024. Jon padece cáncer y pone su salud en manos de la pseudomedicina. Ese es el punto de partida de la obra **Soy Jon y estoy muerto**, la propuesta que abrirá el ciclo de conferencias científicas Bidebarrieta Científica.

El ciclo de conferencias organizado por [la Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco](#) y la [Biblioteca Bidebarrieta](#) inicia así el curso, **el 25 de septiembre a las 19:00 en la Biblioteca Bidebarrieta de Bilbao**, dentro de la programación de [Bilbo Zientzia Plaza](#).

Alegato contra la pseudomedicina

La obra de teatro **Soy Jon y estoy muerto** cuenta la historia de un protagonista que padece **cáncer y que elude tratamientos como el de la quimioterapia**. Esta obra, que explica desde el punto de vista de sus padres, de su hermano pequeño, del médico o de sus amigos la situación del personaje que opta por la pseudomedicina, es un alegato contra la pseudomedicina.

La obra está escrita por Javier Fernández Panadero y dirigida y representada por Rafa Sánchez. Tras la representación habrá un coloquio con el autor.

La entrada a la función será libre hasta completar aforo. No obstante, al igual que el resto de conferencias del ciclo Bidebarrieta Zientzia, se podrá seguir en streaming a través del [canal Kulturgunea de la Biblioteca Bidebarrieta](#).